

# «Beharrezkoa da galderen bidez egindako zientzia»

## Ion Fernandez de las Heras López de Guereñurekin solasean



Laura Maioz Basterretxea  
Arkitektoa eta euskara irakaslea

Bidaltze data: 2021-01-22  
Onartze data: 2021-02-08

Doktorego-tesia amaitu berri du Ion Fernandez de las Heras gasteizarrak. Arkitektura ikasi zuen Bartzelonan eta, ondoren, Antropologian graduondoko ikasketak egin zituen Brasilen. Bertan zazpi urte inguru eman ondoren, Madril du bizitoki egun. *La casa en llamas (Etxea sutan)* izeneko tesian bi diziplinak uztartu ditu, eta Oñatiko Araotz auzoko baserriak izan ditu aztergai. Tesian landutakoak atzera begira jarri gaitu, iragana zein idealizatuta dagoen ikusarazi, eta nora goazen susmatzeko nondik gatozen ulertzea ezinbestekoa dela erakutsi.

**Aldiri:** Baserriek eraman zintuzten antropologia eta arkitektura uztartzera, ala alderantziz izan zen?

**Ion Fernandez de las Heras:** Nik esango nuke alderantziz izan zela. Egia da baserriak txikitatik izan ditudala gustuko — nork ez! — eta arkitektura ikasten nuen garaian erakargarri egiten zitzaizkidalda, baina antropologian buru-belarri sartu arte ez nituen benetako interes kontzeptual eta/edo intelektualeko gaitzat hartu.

Interes hori sortu zen konturatu nintzenean zein arazotsua eta konplexua zen bizileku horiek eta inguratzen dituen guztia ulertzea (soziologikoki, sinbolikoki, ekonomikoki, lurralde-mailan...), nahiz eta arkitekturak eta beste hainbat diziplinak sinetsarazi nahi izan diguten haiek argi dutela zer diren edo nolakoak izan behar duten baserriek.

Gaia aztertzekeo interes zintzoa duen edonor Araotz bezalako leku batera joan orduko konturatuko da arkitekturaren eredu teorikoek ez dutela zerikusirik (edo, izatekotan, oso gutxi)

*bertan bizi diren pertsonen hautematen dutenarekin; hor sortzen den tentsioak liluratuta heldu nion gaiari.*

**A:** Zergatik Araotz auzoa?

**IFdH:** Oro har, esan liteke ahaidetasunagatik dela. Aitaren aldeko amona bertan jaio zen (nahiz eta bere baserriaren oinordekoa ez zenez, Gasteizera joan behar izan zuen neskame eta gaztelania ikastera) eta txikitatik izan dut harremana lekuarekin. Informatzaileekin ahaidetasun-harremana izateak asko errazten du landa-lan etnografikoa, are gehiago, itxi eta zakar fama duen Araotz bezalako leku batean. Kontuan hartu ni Gasteizkoa naizela eta Araotzen gustuko dutela esaera hau [gaztelaniaz aipatu du]: «Si ves una serpiente y un Alavés, deja la serpiente y mata al Alavés». Kar-kar-kar! Baina hori guztia mito bat da; araoztarrak ezin atseginagoak dira. Benetako pribilegioa izan zen azterlana haien lurtean egitea eta solaskide izatea.

Dena den, Araotz aztertzekeo erabakia Errastikua baserriko maiztegitarrak ezagutu nituenean hartu nuen. Lau anaien artean baserria zati ezberdinetan oinordetzan jaso zuten, eta —horietako bakoitza Euskal Herriko beste herri batzuetan bizi arren—, ama hil ondoren baserria birgaitzen hasi ziren aisialdian. Ekintza horretan etxearen autoeraikuntza eta familiaren sare soziala nahasten ziren, eta horrek pentsarazi zidan arreta jartzea merezi zuen zerbait zegoela. Eta, baiki, baserri bakoitzak erakusten du konplexutasun handiko errealitate sozial bat, zeina zaila den tipifikatzen.

**A:** Etxeak (kasu honetan, baserriak) toki heterogeneo eta biziak direla proposatzen duzu, ez pertsona moral, Lévi Strauss-ek definitu zituen gisan. Azalduko diguzu «oicogenesis» kontzeptua, hain zuzen, tesiari izena ematen diona?

**IFdH:** Oicogenesis edo etxea sutan kontzeptua sortu zen baserria, orain eta hemen, etengabeko mugimendu eta ekoizpenean dagoen zerbaiten gisa ulertu eta deskribatzeko saiakeratik, elkarrekintza sozialaren immanentzian. Aipatzen duzun bezala, kontzeptu horrek erantzun egiten die historikoki baserria zerbait estatikotzat, bakartzat, transzendentetzat, moralatzat hartu duten ereduari. Horien artean dago Lévi-Strauss-en pertsona moralarena, baina beste asko daude.

Kontua da arkitekturak, antropologiak, artearen historiak edo ekonomiak baserria zer den definitzen digutela. Esaten dute, adibidez, «baserria halako tipologiari erantzuten dioten forma konstruktiboen multzoa da», edo «ahaidetasun-sistema bat da, oinarri duena etxe bereko hiru belaunaldiko talde batean ematen den ondasun higiezinaren enborreko transmisioa», eta abar. Beraz, haien arabera, baserria soilik aipatutako eraikuntza mota edo sistema soziala izango da, puntuz puntu definizio horiekin identifikatuko dena, nahiz eta, batzuetan, haien artean baztertzailak izan. Hau da, diziplina horiek diotenean zer den baserria, berez, inposatzen ari dira baserriak nolakoa izan behar duen; inolako abisurik gabe pasatzen dira azterketa analitikoetik iritzi moral eta/edo estetikorara.

Eta, orduan, Araotz bezalako leku batera joan, eta kontrakoa esaten dizute. Ariketa interesgarria da baserriarrei hau galdetzea: «Zer da baserri bat?». Batzuk (ez gutxi) haserre bizian jartzen ditu horrek, edo iskin egiten diote galderari, itauna ezatsegina eta ezegokia iruditzen zaielako; gainerakoek era guztietako definizioak emango dizkizute. Kasu batzuetan, irinaz eta ogia egiteko prozesuez hitz egin zidaten, beste batzuetan, Uriarte Garaikuan, esaterako, esan zidaten baserria «beti egin beharreko zerbait duzun» sentipena izatea dela, edo, besterik gabe, «egiteko zerbait».

Problematika horietatik abiatuta, oicogenesis ideiak erreferentzia egiten dio baserriak ikertzeko saiakera bati, zeinak baserriak oro har zer diren baino areago, baserriak zer prozesu partikularrek egiten dituzten hartzen duen kontuan. Hori da, hain zuzen, nire tesiaren proposamen etnografikoa: Araotzeko zenbait baserriaren inguruko «gertakariak» eta «zereginak» deskriptiboki ondorioztatzea.

**A:** Tesian garrantzi handia du 1918 urteak, non Euskal Ikasketen Lehen Kongresua egin zen Oñatin. Zuk diozu bilkura hartan bildutakoek defendatutako argudio estetikoak «zientifismo antropologikoan eta nazionalismo arrazistan» oinarritu zirela, eta azaltzen duzu bertan egindako baieztapenek «euskaltasuna» definitzeko bilaketaren lehen harria jarri zutela. Gizon zuri klase altuko horiek baieztatutakoa auzitan jartzea zure tesiaren funtsetako bat dela iruditu zait. Hala da?

**IFdH:** Hala da, Oñatin egin zen 1918ko kongresua oso garrantzitsua izan zen euskal identitate diakritikoa eratzeko, zeina ikertzaile ugari aztertu izan duten. Egun, «arraza» hitza entzutean, nazismoa datorkigu burura, baina egia da garai hartan europar zientzian oso presente zegoen kontzeptu bat zela, eta, beraz, baita Euskal Herrikoan ere. Orduko «arraza»

gaur egungo «kultura»ren baliokidea zen hein handi batean; bere erabilerak ez zuen konnotazio negatiborik. Esan daiteke iraindutako kontzeptu horrek zenbait kilo galdu zituela eta atzean utzi zituela hipotesi biologizista eta fisionomista batzuk eta, aldaketa handirik gabe, «kultura»rekin lotutako ideia bihurtu zela 40ko hamarkadatik aurrera Euskal Herrian. Euskal nazionalismoaren oinarrian dauden «herri» eta «nazio» kontzeptuak ere, hain handi batean, XIX. mendeko Alemaniako pentsamendu politikoaren arau espiritualista eta esentzialistetatik eratorri ziren; eragin txikiagoa izan zuten Frantzia eta Britainia Handiko kontraktualismo sozialarengandik. Uste dut horrek balio beharko ligukeela gure hizkera zein jakintzaren hondakin kolonialistez ohartarazteko.

Horrekin esan nahi dut, hain zuzen, euskaltasuna ikertzailetalde jakin baten helburuen arabera sortu zela eta, asmorik onenak izan zitzaizketen arren, estereotipo sozial bakarra izan zutela kontuan: hiriko gizon zuri eskala ekonomiko zein intelektual altukoa. Eta, nahiz eta zenbait gauza aldatu, egia da kontzeptu eta enuntziatu ugari hemen jarraitzen dutela, gure pentsaera garaiakidean; ez soilik sektore atzerakoenetan, baita lekuri susmagaitzenetan ere, esaterako, aktibismo antiarrazista edo feministaren barruko zenbait ildotan. Henrietta Moore edo Lila Abu-Lughod antropologoen ohartarazi dute zein «arriskutsua» eta kontraesankorra izatera irits daitekeen bere burua «feminismo kulturalista»tzat duen ildo (Alice Echols autoreak defendatzen duena, kasu), zeinak baieztatzen duen badela feminitasunaren nolabaiteko esentzia kultural unibertsal bat.

Duela zenbait hamarkadatik hona, antropologia (paradoxikoki bere historian zehar arraza eta kultura kontzeptuak gehien erabili izan dituen diziplina) saiatu da Viveiros de Castrok deitzen dion «pentsamenduaren deskolonizazio etengabekoan» bere alea jartzen. Hain zuzen hori izan da, neurri batean, nire lanaren helburu nagusietako bat.

**A:** Gizarte modernoak aurreko gizartea kritikatu zuen primitibo, zakar eta zikintzat baitzuen; aldi berean, baina, idealizatu zuen eta nostalgiaz begiratzen zion. Baserrimunduaren zantzu gutxi batzuk geratzen diren garaiotan, zer da galdu nahi ez duguna? Eta, zer, ahaztu nahi duguna?

**IFdH:** Desira idealistaren eta erraietako gorrotoaren arteko kontraesan betiereko hori da ikuspegi modernoak landa-eremuarekiko, indigena edo «tradizionala» denarekiko duen ezaugarrien artean arreta handien ematen duenetako bat. Faktore hori beti azaltzen da identitate kultural/nazional bat eraikitze prozesuekin lotuta, eta baita horiek estatu-praktiken markoan finkatzearekin ere. Erruz eztabaidatu izan da nola «tradizioak» egiazki «asmatuak» diren (Hobsbawm eta Ranger-en liburu ezaguneko terminologia erabilia), eta nola dauden lotuta memoriaren aukeraketa konstante batekin; Euskal Herriko kasua dezente ikertu izan diren gisa horretako adibidez lepo dago, esate baterako, matriarkalismoa.

Baina bada, aspalditik, gure landa-eremuko historiari ezabatu nahi dela dirudien zerbait, oso deigarria egiten zaidana: baserrien oinordeko ez zirenen («bigarrenen») partaidetza sistematikoa Espainiaren kolonizazioaren garapenean, bereziki konkistaren hasierako fase odoltsuan. Ez naiz historiografiari

buruz ari, zeina oro har oso zorrotza izan den gaia aztertzean, baizik eta nolabait gizarteak gaiarekiko duen ikuspegiarekin. Hainbatetan egin izan dut topo euskaldunek Amerikan eta Filipinetan izan zuten partaidetza modu batean ukatzen zuten pertsonekin. Kokaleku arriskutsua iruditzen zait, eta, gainera, okerra, politikoki koldarra. Ez die inongo mesederik egiten, ez euskaldunei, ez inbasio eta genozidioaren ondorioak jasan zituztenei. Eta bereziki deigarria da zeren, Jesus Arpal-ek zein beste zenbait autorek erakutsi izan duten moduan, etengabe eta masiboki bidali zituzten landa-eremuetako soldadu eta misiolari jesuitak Ameriketara. Gainera, landa-eremu euskalduneko ekonomiak biziraun zezan lagungarri izan zen hori; izan ere, «bigarrenak» (baserriaren oinordeko ez zirenak) erreskatatzeko modua ere ahalbidetu baitzuen. Amerikako konkistatzaile odolzaleen arteko batzuk, Pedro Urtsua, Lope Agirre edo Migel Lopez Legazpikoa, esaterako, euren baserrietako «bigarrenak» izan ziren.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago errealitatea are konplexuagoa dela. Michael Herzfeld-ek, esaterako, «intimitate kultural» deitu dio soziabilitatearen atalase bitxi horri, non afektuak sentikortasun handiz bizi diren eta lotsa-sentimendua aberria sustatzen duen harrotasun-sentimenduarekin nahasten den. Pentsa dezagun, adibidez, baserriarri egotzen zaizkion bi topikoetan: burugogorkeria eta zakar zein basati itxura. Ezaugarri horiek izan dira, aldi berean, landa-eremukoak mespretxatzeko arrazoi eta euskaldunek kanpoko komunitateen aurrean zuten harrotasunaren oinarrietako klixetako batzuk. Kontserbatu nahi eta ez; gustuko izan eta ez, aldi berean. Izan ere, jatorrizko etorkizuna margotu nahi izanda ere, hondakinak eta itzalak atzetik jarraitzen digute eta egiten gaituzte.

**A:** Baserriak ondare bilakatu zireneko prozesua azaltzen duzu tesian. Zer iritzi duzu baserri-arkitektura babesteko egungo legediaren gainean?

**IFdH:** Iruditzen zait patrimonializazio konbentzionalak prozesu bat osatzen duela, zeinak erabat agerian uzten duen aipatu dugun memoriaren hautaketaren arazoa. Ondare arkitektonikoaren kasuan, Estatuak ebaluazio-erregimen bat finkatzen du, zeinaren bidez zehazten den eraikin bat zehatz-mehatz eraikitako kategoria baten erakusletzat jotzeko modukoa dela; horren adibide da, esaterako, «baserri gipuzkoar arketipoa», Caro Barojak 40ko hamarkadan eta Santana Ezkerrak egun, sustatutakoa.

Eredu teoriko transzendente horietatik abiatuta, iritzi patrimonialistak bitan zatitu zuen bizitza; banaketa bat ezarri zuten ia legedi guztiek hala izendatutako «benetakoa»ren eta «baztertzailea»ren artean. Autentikoa da eraikinaren idealizatutako eta baloratutako parametroekin lotzen dena (alderdi monumental); baztertzailea, berriz, eraikinaren bizitzaren eta historiaren errealitatearen zati izanagatik ere, existitu beharko ez litzatekeena (gainerakoa, zaborra). Ondare bihurtutako baserrien kasuan, Ezkioko Igartubeiti baserri-museo ezagunarekin gertatu bezala, ohikoa da forma arkitektonikoaren zenbait alderdi autentikotzat hartu eta mantentzea; haatik, bertan urte luzez bizitako familia, esaterako, baztertzeko modukoa da, eta hura bertatik ateratzea eskatzen du. Beste era batean esanda, autentikoa



*Irudiaren egilea – Ion Fernandez de las Heras López de Guereñu.*

da etorkizunera pasatzeko baimena duen iraganaren zatia; baztertzaila da ahaztu beharreko iragana, iragan-zaborra, Trotski-k aipatzen zuen «historiaren zabortegia».

Kontserbazioaren antropologiak azken 25 urteotan frogatu duen moduan, jarduera patrimonializatzailea suntsikorra izan daiteke, baldin eta «adituen» esku utzi eta ez badu kolektibo eta ikuspegi askotarikoek parte hartzeko mekanismorik aurreikusten.

Zorionez, zenbait urtetik hona, patrimonializazio-prozesuetan sozializazioaren eta demokratizazioaren alde egin da, eta horrek monumentua politikoki eta kulturalki arazotsua den artefaktutzat hartzea ahalbidetzen du. Horrela ikusita, eraikin bat etengabeko eztabaidan dagoen zerbait da. Hala ere, ekimen mota hauek paradigmaticoak dira oraindik; legediaren zati handienak balio-, komunitate- eta benetakotasun-kategoria zaharretan ainguratuta jarraitzen du.

**A:** Sarreran diozu zure tesiak ez duela proposamen bat baieztatu nahi, baizik eta problematika bat erakutsi. Argitu gabeko galderaren bat utzi duzu aurrerago erantzuten saiatu nahi duzuna?

**IFdH:** Bai! Pila bat! Uste dut galderak sortu besterik ez dudala egin eta erantzun bakar bat ere ez dudala eman.

Nire ikerketa guztia «zer da baserria?» galderaren inguruan zedarritu da, eta frogatu dudala esan daitekeen bakarra zera da: itaun horri ezin zaiola ihardetsi pentsamendua mugatu gabe edo baserrien errealitatea traizionatu gabe. Hala, ehunka galdera berri azaldu dira: lurraldetasunarekin eta paisaiarekin lotutakoak, basoaren etika eta estetikarekin lotutakoak, familia- eta etxe-osaketa berrieekin lotutakoak, generoarekin eta sexuarekin lotutakoak eta abar.

Lehen begiratuan irudi lezake pixka bat absurdoa dela galderak ireki besterik egin ez izana, baina uste dut hori zientzia egiteko beharrezko modu bat dela. Ez da demostrazioen zientzia, baizik eta interpelazioena; bestearengana eta bestelako gauzetara, susmatu gabekora, irekitzera bideratutako metodoa. Hori izan zen, nolabait, Aristotelesen metodo aporetiko edo dialektikoaren proposamena, zeinari esker jaio zen metafisika eta kontsolidatu zen filosofia. Izan ere, azken finean, antropologia, Tim Ingold-ek dioen moduan, ez da «barruan pertsonak dituen filosofia» besterik.

===